- II.- Lan eta Justizia Sailari dagozkio tutoretza judizialaren eraginkortasunera eta doako justiziara bideratutako neurriak hartzea, zerbitzu horiei diru kopurua esleitzea, zerbitzu horietarako aurrekontu-sailetan zordunduta, eta zerbitzuok gainbegiratzea. Horren bidez, doako laguntza juridikoa jasotzeko eskubidea ziurtatzen da. Eskubide hori Konstituzioaren 119. artikuluan jasota dago, eta bat

dator Doako Laguntza Juridikoaren urtarrilaren 10eko 1/1996 Legearen 37. artikuluan ezarritakoarekin, zehazki, abokatuen eta prokuradoreen elkargoek ematen dituzten doako laguntza juridikoaren zerbitzuak ezartzeko, zaintzeko eta haien funtzionamendua bermatzeko diru publikoa emateko betebeharrarekin.

III.- Abokatuen eta prokuradoreen elkargoek letraduen laguntza, defentsa eta ordezkariak emateko zerbitzuak antolatu behar dituzte, eta doako laguntza juridikoa eskatzen dutenei doako aholkularitza-zerbitzuak eskaini behar dizkiete, eskatzaileen asmoak behar bezala bideratzeko; betiere ekainaren 10eko 1/1996 Legearen 22. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita. Halaber, Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorren VI. kapituluan doako laguntza juridikoari buruz ezarritakoarekin bat dator.

IV.- Era berean, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saileko arduradunek eta abokatuen elkargoek, Legelarien Euskal Kontseiluaren bitartez, badakite emakumearen aurkako indarkeria, etxeko indarkeria eta sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako egintza mota guztiek gure gizartearen aurrerapen eta garapen askea oztopatzen dutela. Hitzarmen honetako alderdi sinatzaileek, betiere hitzarmen honen mugen barnean, herritar guztien parekotasuna sustatu nahi dute, eta delitu horiek jasan dituzten pertsonen lagundu nahi diete beren askatasuna eta eskubideak guztiz erabiltzea eragozten duten oztopoak ezabatzen. Hortaz, delituen ondorioak, ahal den heinean, arintzen lagundu nahi dute, nahiz eta jakin delitu horiek egiaztatzea oso zaila dela batzuetan. Hori guztia kontuan hartu dute, eta alderdi sinatzaileek konpromisoa hartzen dute: batetik, delitu horiek jasan dituzten pertsonen Justizia Administrazioa iristen laguntzeko; eta, bestetik, giza baliabideak, baliabide materialak eta baliabide ekonomikoak xede horretarako esleitzeko.

V.- 2003ko apirilaren 2an, erakunde biek akordio bat sinatu zuten etxeko indarkeriaren edota sexu-erasoen biktimezako Laguntza Juridikoaren eta Ofiziotako Txandaren Zerbitzua Euskal Autonomia Erkidegoan sortzeko. Horren arabera, Legelarien Euskal Kontseilua osatzen duten abokatuen elkargoetako bakoitzak txanda berezi horren funtzionamendua eta kudeaketa antolatu behar zituen, eta justiziaren arloko sail eskudunak bere gain hartu zuen zerbitzua finantzatzeko ardura.

Akordio hori sinatu eta hiru urte geroago, akordioaren jarraipena egiteko batzordeak aurreko esparrua ordeztzeko beste harreman-esparru bat sortu zuen bi erakunde horien artean. Esparru berrian zerbitzuaren antolaketa osoa landu zen, eta, horren ondorioz, 2007ko otsailaren 26an, Euskal Autonomia Erkidegoan emakumearen aurkako indarkeriaren, etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen biktimei berehalako laguntza juridikoa emateko hitzarmena sinatu zuten. Harrezkero, emakumearen aurkako indarkeriaren eta etxeko

indarkeriaren arloko arauak nazioartean, nazioan eta autonomian aldatu eta aurreratu egin dira; hortaz, ezinbestekotzat jo da hitzarmen hau egitea, lankidetzaz-helburuak eguneratzeko eta zabaltzeko.

VI.- Taula honetan adibide moduan ikus daiteke aurreko akordioak indarrean egon bitartean Euskal Autonomia Erkidegoan emakumearen aurkako indarkeriaren, etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen biktimei berehalako laguntza juridikoa emateko hitzarmenaren arloko esku-hartzeak zer bilakaera izan duen:

**2003KO AKORDIOA eta 2007KO HITZARMENA
LETRADUEN ESKU-HARTZEAK, GUZTIRA**

	ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA			EAE		
	E	G	Guztira	E	G	Guztira	E	G	Guztira	E	G	Guztira
2003			216			367			168			751
2004	353	24	377	1.144	93	1.237	527	50	577	2.024	167	2.191
2005	396	24	420	1.249	123	1.372	664	70	734	2.309	217	2.526
2006	384	43	427	1.358	86	1.444	748	76	824	2.490	205	2.695
2007	482	29	511	1.535	140	1.675	879	81	960	2.896	250	3.146
2008	462	37	499	1.699	182	1.881	908	100	1.008	3.069	319	3.388
2009	448	54	502	1.805	152	1.957	962	103	1.065	3.215	309	3.524
2010	426	30	456	1.628	189	1.817	911	68	979	2.965	287	3.252
2011	446	32	478	1.747	166	1.913	1.017	106	1.123	3.210	304	3.514
2012	510	55	565	1.841	197	2.038	980	103	1.083	3.331	355	3.686
2013	554	25	579	1.788	125	1.913	857	124	981	3.199	274	3.473
2014	471	39	510	1.742	144	1.886	1.145	165	1.310	3.358	348	3.706
2015	608	39	647	1.673	186	1.859	1.146	133	1.279	3.427	358	3.785
2016	563	66	629	1.784	160	1.944	1.221	142	1.363	3.568	368	3.936
2017	680	65	745	1.892	130	2.022	1.220	157	1.377	3.792	352	4.144
2018	624	64	688	1.946	152	2.098	1.369	164	1.533	3.939	380	4.319
2019	604	35	639	2.204	185	2.389	1.415	194	1.609	4.223	414	4.637

Esku-hartze horiei erantzun ahal izateko, zerbitzuak guztira 8 guardiako letradu eta errefortzuko 7 letradu esleitu zituen, 2007ko otsailaren 26tik. Honela banatzen dira lurraldeka: Bizkaian, 4 guardiako letradu eta errefortzuko 3 letradu; Gipuzkoan, 3 guardiako letradu eta errefortzuko 2 letradu; eta Araban, guardiako letradu 1 eta errefortzuko 2 letradu. Aldi horretan abokatuen elkargoek letradunen kopurua moldatu arren, premia zehatzen arabera; baina, gaur egun, beharrezkoa da zerbitzuaren dimentsioa berriro zehaztea, premiak gero eta handiagoak direlako, eta erantzun egokia eman behar zaielako.

VII.- 2018. urtean honela banatu da barruti judizialean emandako laguntza:

Eremua	1. seihileko laguntza 2018	2. seihileko laguntza 2018	Guztira	Eguneko batezbestekoa
Bilbo-Balmaseda	532	613	1.145	3,14
Barakaldo	247	283	530	1,45
Getxo	98	82	180	0,49
Durango	71	60	131	0,36
Gernika	63	49	112	0,31
Irun-Donostia-Tolosa	577	621	1.198	3,28
Azpeitia-Bergara-Eibar	155	180	335	0,92
Gasteiz	290	290	580	1,59
Amurrio	52	45	97	0,27

VIII.- Hitzarmen hau egin da honako arau hauek eta haietatik eratorritako betebeharrak betez: Espainiako Konstituzioa eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutua; Indarkeriazko Delituen eta Sexu Askatasunaren Aurkako Delituen Biktimak laguntzeko eta sorosteko 35/1995 Legea; abenduaren 28ko 1/2004 Legea, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa; Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea, Eusko Legebiltzarrarena; «Istanbulgo Hitzarmena» (Genero indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta horien kontra borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena, Europan 2011ko maiatzaren 11n sinatua); Genero Indarkeriaren aurkako Estatuko Ituna; martxoaren 1eko 29/2011 Dekretua, Genero indarkeriaren biktimei laguntzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean dauden koordinazio mekanismoei buruzkoa; martxoaren 30eko 1/2015 Legea, Zigor Kodearena; apirilaren 27ko 4/2015 Lege Organikoa, Delituaren Biktimaren Estatutuarena; eta urriaren 30eko 153/2018 Dekretua, Doako Laguntza Juridikoarena; baita indarrean dagoen gainerako ordenamendu juridikoa ere. Era berean, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimak diren emakumeei eskaintzen zaien laguntza hobetzeko erakundeen arteko II. akordioan eta etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eraginkortasuna bermatzeko koordinaziorako lurralde protokoloetan ezarritakoa ere bete da.

IX.- Hitzarmen honen alderdi sinatzaileek berriazko interes bikoitza adierazi dute. Batetik, bermatu nahi dute biktimek informazioa eta laguntza juridiko espezializatua jasotzea. Horrela, biktimei aholku egokia emango zaie tresna juridiko erabilgarriari eta tresna horien ondorioei buruz, salaketa jarri aurretik, baita defentsari buruzkoa ere, akusazio partikularra baliatu nahi izanez gero. Bestetik, indarkeriari buruzko txanda berezi hori egiten duten letraduei jarduketan berezitasunaren arabera ordain ekonomiko egokia bermatu nahi zaie. Izan ere, hitzarmenaren xede diren delituei buruzko hasierako prestakuntza eta prestakuntza jarraitua ziurtatu beharko dute letradu horiek.

Horiek horrela, alderdi sinatzaileek hauxe

ERABAKI DUTE:

LEHENA. - HELBURUA

Honako delitu hauek osa ditzaketen egitateen biktimak izan direla adierazten duten pertsoneri laguntza juridikoa emango zaie, eta hitzarmen honen xedea, hain zuzen ere, laguntza juridiko hori emateko baldintzak arautzea da:


- «*Emakumearen aurkako indarkeria*»: delitu hori osatzen da emakumearen giza eskubideak zapaltzen direnean, eta, horren ondorioz, emakumeak kalte edo sufrimendu fisikoa, sexuala, psikologikoa edo ekonomikoa jaso duenean, edo jasotzeko arriskuan dagoenean. Horrek barne hartzen ditu egitate horiek egiteko mehatxua, emakumea behartzea edo askatasunaz arbitrarioki gabetzea eremu publikoan zein pribatuan.
- «*Familia-indarkeria*»: familian edota etxean gertatutako indarkeria fisiko, sexual, psikologiko edo ekonomikoko egintza guztiak barne hartzen ditu termino horrek.
- «*Sexu-askatasunaren aurkako indarkeria*»: delitu mota horretan sartzen dira Zigor Kodearen VIII. tituluaren tipifikatuta daudenak, baita beste delitu batzuk ere, zeinetan aldez aurretik ez baitzegoen biktimagilearen aurkako aldez aurretiko harremanik.

Azaldu berri diren delitu horiek jasan dituzten pertsoneri arreta emateko, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako abokatuen elkargoek banaka eta bakoitzaren lurralde-mugapenean ezarriko dute letraduen zerbitzua. Honako zerbitzu hauek emango dituzte doan:

- hasierako eta berehalako laguntza eta laguntza jarraitua emateko hogeita lau orduko guardiako zerbitzua
- ofiziozko txandaren printzipioak araututa, pertsona horiei defentsa juridikoa emateko zerbitzua

BIGARRENA. - EREMU SUBJEKTIBOA

Lehen atalean azaldu diren delituak Euskal Autonomia Erkidegoan jasan dituzten pertsona guztiek jaso ditzakete hitzarmen honetan onartzen diren zerbitzuak, pertsona horien diru-sarrerak edozein izanda ere, eta EAEko egoiliarrak izan zein ez.



HIRUGARRENA. - DOAKO EDUKIAK

Honako hauek sartzen dira hitzarmen honetan azaltzen diren delituen biktima guztiei eskaintzen zaien doako laguntza juridikoan:

- Biktimari aurrez aurreko aholku ematea, biktimak salaketa jarri aurretik, edo, hala dagokionean, babes-agindua emateko eskatu aurretik. Aholkuak egokitu beharko dira biktimaren egoerara, delituaren ezaugarrietara eta biktimak jasan dituen kalte-galeretara.
- Biktimari laguntzea salaketa jartzen eta, hala dagokionean, babes-agindua emateko eskaera ere egiten.
- Babes-agindua emateko agerraldira edo prozesua izapidetu bitartean behar den edozein eginbide judizialetara bertaratzea.
- Errekurtsoak formulatzea, aurkaratzea edo ezeztatzea, hala behar denean.
- Prozesua amaitu arte gauzatu behar diren egintza prozesal guztiak, baldin eta egintzetan letradu batek benetan eta era eraginkorrean parte hartu behar badu.

Doako laguntza juridikoaren indarreko arautegia betez, eta bertan onartzen den laguntza biktimari aitortu behar zaiola egiaztatzeko ondoretarako, letraduak, biktimaren lankidetzak aktiboarekin batera, izapidetuko ditu Doako Laguntza Juridikoaren 153/2018 Dekretuaren II. eranskineko dokumentuak eta formularioak, baita une bakoitzean legez ezartzen direnak ere.

LAUGARRENA. - ZERBITZUA ERABILTZEA ETA ZERBITZUARI BURUZKO INFORMAZIOA

Guardiako zerbitzuak eguneko hogeita lau orduetan erabilgarri egon behar du, eta telefonoz eska daiteke, 902 103 908 telefono-zenbakira deituz. Polizia-agintarien, agintari fiskalen edo judizialen bitartez egindako eskaerei edo biktimei laguntzeko zerbitzuan jasotako eskaerei erantzuteko aktibatuko da.

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak eta Legelarien Euskal Kontseiluak idatziz jasoko dute hitzarmen honen bidez biktimei aitortzen zaizkien eskubideei buruzko informazioa. Informazio hori honako bulego hauetan egongo da erabilgarri: bulego judizialetan, poliziaren eta gizarte-zerbitzuen bulegoetan, abokatuen elkargoen egoitzetan eta Eusko Jaurlaritzaren mendeko zerbitzu guztietan.

Agintariak eta hitzarmen honen arabera biktimei laguntzen dieten abokatuek idatzizko informazio hori eman beharko diete biktimei, biktimak haiekin harremanetan jartzen badira.

BOSGARRENA. - GUARDIAKO ZERBITZUA NOLA ANTOLATU ETA NOLA EMAN

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako abokatuen elkargoek askatasun osoa izango dute hitzarmen honen xede diren guardiako zerbitzuaren eta ofiziozko txandaren barne antolaketa egiteko.

Abokatuen elkargoek, guztira, 15 profesional titular eta errefortzuko 7,5 langile izendatuko dituzte. Honela banatuko dira, lurraldearen arabera: Bizkaian, 7 abokatu titular eta errefortzuko 4 guardiako abokatu; Gipuzkoan, 5 titular eta errefortzuko 2 guardiako abokatu; eta Araban, 3 titular eta errefortzuko 1,5.

Eremua	Letradu titularrak eta errefortzukoak
Bilbo-Balmaseda	3 + 1
Barakaldo	1 + 1
Getxo	1 + 1
Durango	1 + 0,5
Gernika	1 + 0,5
Irun-Donostia-Tolosa	3 + 1
Azpeitia-Bergara-Eibar	2 + 1
Gasteiz	2 + 1
Amurrio	1 + 0,5

Alderdiek, ados jarrita, profesionalen kopurua handitu edo murriztu ahal izango dute, zerbitzuaren premien arabera.

SEIGARRENA. - AURREZ AURREKO AHOLKULARITZA JURIDIKOA ETA ALDEZ AURRETIKOA

Laguntza juridikoa aurrez aurre emango zaio biktimari: letraduaren bulego profesionalan, polizia-etxean, epaitegian edo antzekoa den beste leku batean. Biktimari ezin izango zaio telefonoz eman aholkua, salbuespena izan ezean.

Alderdiek konpromisoa hartzen dute biktimari behar bezalako aholku juridikoak emateko, biktimak salaketa jarri aurretik. Biktimak askatasun handiagoz egingo die aurre ondoko izapideei, bere erabakiaren ondorioen berri aldeztatik jaso badu. Letraduaren agerpena berehalakoa izatea bermatze aldera, eskaera harremanetarako telefonoz jasotzen denetik letradua behar den lekuan bertaratu arteko denbora-tartea gehienez ere ordubete eta erdikoa izango da. Guardiako profesionalak biktimari edo telefonoz deitu duen pertsonari jakinaraziko dio letraduak gutxi gorabehera zenbat denbora eman beharko duen zerbitzu ematera iristeko, baita atzerapen-denbora ere.

Abokatuen elkargoak bereziki saiaturiko dira lehentasuna ematen letraduen laguntza emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegietan jasotzeko premiei, eta baliabide egokiak jarri beharko dituzte premiei (atxilotuen, pertsona ikertuen edota inputatuen premiei ere bai) erantzun ahal izateko. Horrela, saiaturiko da atzerapenak

biktimari ekar diezaiokeen biktimizazio handiagorik edo bigarren mailako biktimizaziorik ez gertatzen.

ZAZPIGARRENA. - JUSTIZIAREKIKO LANKIDETZA-ZERBITZUAK

Letraduak idatzizko informazioa entregatu behar du ahal den guztietan, laguntza behar duten pertsona guztiek biktimei laguntza emateko zerbitzuaren laguntza jaso ahal dezaten. Biktimei laguntzeko zerbitzua justiziaren arloko sail eskudunaren mendeko zerbitzua da, administrazio-koordinazioaren barnekoa. Zerbitzu publikoa, diziplina anitzekoa eta diziplinartekoa da. Bulegoak Barakaldon, Donostian eta Gasteizen daude.

Era berean, letraduak informazioa eman beharko du justiziarekin lankidetzan aritzen diren beste zerbitzu batzuei buruz, hala nola Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuari edo Zigorrek kudeatzeko Zerbitzuari buruz.

ZORTZIGARRENA. - TXANDAK ANTOLATZEKO ERREGELAMENDUAK

Abokatuen elkargoek konpromisoa hartzen dute antolaketa-erregelamenduak onartzeko. Bertan jasoko dituzte hitzarmen honen bidez onartzen diren arauak; edo, bestela, jada egin dituzten erregelamenduak moldatuko dituzte. Erregelamendu-proiektuak justiziaren arloko sail eskudunaren kontsulta-txostenaren mende egongo dira.

BEDERATZIGARRENA. - GAINBEGIRATZEA

Abokatuen elkargoek gainbegiratuko dute laguntza behar bezalako baldintzetan ematen den.

HAMARGARRENA. - ESKU HARTZEN DUTEN PROFESIONALEN BALDINTZA EKONOMIKOAK

Justiziaren arloko sail eskudunak bere gain hartzen du abokatuen elkargoei ordaintzeko ardura. Gero, elkargoak letraduei banatuko die, hitzarmen honetan ezartzen den ordainsari ekonomikoaren arabera.

Hitzarmen honen arabera egiten diren ofiziozko txandak Doako Laguntza Juridikoaren indarreko arautegiak arautuko ditu, alderdi guztietan.

Hitzarmen honetan ezarri diren jarduketak egin ondoren, biktimak jasan zuen delitu berari lotutako beste jarduketa batzuk ere letraduek egin behar badituzte, biktimari hasieran lagundu zion letradu berak egingo ditu, eta letradu horrek jasoko du dagokion ordainsari ekonomikoa, Doako Laguntza Juridikoaren indarreko araudiarekin bat etorrita. Horrez gain, letraduak, hala dagokionean, berari

dagozkion ordainsariak eskatu ahalko ditu, Doako Laguntza Juridikoaren indarreko araudian ezarritako baldintzetan.

Kasu horietan bermatu beharko da letradu zuzendaritza berak bere gain hartzea biktima ordezkatzeko, inguruabar bereziek, substantiboek edo prozesalek hori oztopatu ezean.

HAMAIKAGARRENA. - FINANTZIAZIOA

Justiziaren arloko sail eskudunak honela finantzatu du:

- Abokatuen elkargoei 29 zentimo kilometro bakoitzeko ordainduko die, lekualdaketa-gastuak konpentsatzeko, letraduek zerbitzu ematera bidaiatu behar dutenean. 0 kilometrotzat hartuko da letraduaren bulego profesionala. Bestela, taxi-zerbitzua erabiltzeagatik sortu zaizkien lekualdaketa-gastuen dirua itzuliko zaie, letraduak autorik ez badu, edo bere auto pribatua erabili ezin badu, edo zerbitzua behar bezala ematea bermatzen duen garraio publiko kolektiborik ez dagoenean.

Era berean, letraduak, epaiketa batean zerbitzua emateko, bere bulego profesionalari dagokion barruti judizialek kanpoko beste barruti judizial batera bidaiatu behar du, lekualdaketa-gastuak ere ordainduko zaizkio.

- 24 orduko guardia egiteagatik eta guardia horretan edo hurrengo egunetan eman behar izan duten laguntzagatik, honako ordainsari hauek ordaindu zaizkie:

270 euro, letradu titularrari

135 euro, errefortzukoari

- Kudeaketa gastuengatik, 13 euroko ordainsari ekonomikoa emango zaio parte bakoitzeko.
- Telefonoa kudeatzegatik sortu den gastua. Hitzarmen honetako laugarren erabakian aipatu da.
- Aurreko kontzeptuen finantzaketa EAeko urteko aurrekontuen legean esleitzen diren Justizia Zuzendaritzaren laguntza-partida izendunetan zordunduko da, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako elkargoen alde. Hiru hilez behin emango dira, justizia arloko sail eskuduneko sailburuaren aginduaren bitartez.
- Hitzarmen honetan ezarritako guardia-zerbitzuetan eta txandetan zerbitzua ematen duten abokatuen elkargoei nahitaezko prestakuntza emango diete elkargoko kideei, eta prestakuntza EAeko urteko aurrekontuen legean esleitzen diren Justizia Zuzendaritzaren laguntza-partida izendunetan zordunduko da, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako elkargoen alde; zehazki, Justizia

Zuzendaritzaren aurrekontuetan prestakuntzarako dagoen partidan zordunduko da. Emakida justizia arloko sail eskuduneko sailburuaren aginduaren bitartez egingo da.

HAMABIGARRENA. - HITZARMENA EGUNERATZEA

Hitzarmen honen luzapenei begira, aurreko kopuruak Kontsumoko Prezioen Indizearen arabera eguneratu ahal izango dira, baldin eta dagokion urtean espresuki aurreikusita badago Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuetan.

HAMAHIRUGARRENA. - PRESTAKUNTZA

Legelarien Euskal Kontseiluak hasierako nahitaezko prestakuntza eta nahitaezko prestakuntza jarraitua emango dizkie hitzarmen honen ondoriozko zerbitzuetan izena eman duten legelariei. Lan eta Justiziako Sailaren lankidetzaren eta finantzaketaren laguntzaz, nahitaezko urteko ikastaroak antolatu beharko dira, eta haietan behar bezala azalduko dira egungo koordinazio-protokoloak.

Bestalde, EMAKUNDEK berdintasunaren arloko prestakuntzari buruzko informazioa eskatzen du EAEko berdintasun-planak ebaluatzeko. Hori dela eta, elkargoek urtero prestatuko dute hitzarmen honetan jorratutako indarkeriari buruz egin dituzten ikastaroen zerrenda, eta bertan zehaztuko dituzte zenbat pertsonak parte hartu duten (emakumeak eta gizonak bereizita) eta gastua. Zerrenda eta datu horiek Eusko Jaurlaritzaren justiziaren arloko zuzendaritza eskudunari bidaliko dizkiote.

HAMALAU GARRENA. - DIRU-LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA

Abokatuen elkargoek hiru hilez behin justiziaren arloko sail eskudunari bidaliko dizkiote gainerako txanden likidazioa justifikatzeko dokumentazioa, hitzarmen honetako II. eranskinean eskatzen den informazioarekin batera, honako datu hauek ere bertan adierazita: egindako esku-hartzeei buruzko datuak, egindako esku hartzeen kopurua, eskaeraren jatorria, esku-hartzea non egin zuten, zenbat pertsonari lagundu dioten, zenbat salaketa jarri diren, zer delitu mota izan den, izena eman duten letraduen kopurua, bai eta ados daitezkeen gainerako datu guztiak ere. Horrez gain, eskera jaso eta erantzun arteko berandutze-denborari buruzko informazioa ere ematen saiatu beharko dute.

Justiziaren arloko sail eskuduneko sailburuak elkargoei hitzarmen honen finantziarioa gauzatzeko diru-laguntza onartzeko ematen duen aginduan zehaztuko ditu baldintza horiek, zehatz daitezkeen beste baldintza batzuekin batera.

HAMABOSGARRENA. - JARRAIPEN-BATZORDEA

Jarraipen Batzordea eratuko da, zerbitzuaren funtzionamendua ebaluatzeko. Batzordea era paritarioan eratuko dute justiziaren arloko sail eskuduneko lau ordezkari, eta, alde batetik, Legelarien Euskal Kontseiluko kide batek; eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru abokatu-elkargoetako kide banak. Jarraipen Batzordea urtean bitan batzartuko da gutxienez. Justiziako zuzendariak edo dagokion organoak egingo du deialdia.

HAMASEIGARRENA. – EZ-BETETZEA

Alderdietako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio alderdi ez-betetzailerari, bi hilabeteko epean bete ditzan ez betetzat jotako betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimendu hori Jarraipen Batzordeari eta gainerako alderdi sinatzaileei jakinaraziko zaie. Errekerimenduan adierazitako epea igarotakoan ez-betetzeak bere horretan badirau, errekerimendua bideratu duen alderdiak hitzarmena suntsiarazteko arrazoia badagoela jakinaraziko die alderdi sinatzaileei, eta hitzarmena suntsiarazitzat joko da.

HAMAZAZPIGARRENA. - INDARRALDIA ETA IRAUPENA

Hitzarmen honek 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra arte izango ditu ondorioak. Aldi hori bukatu baino lehen, alderdi sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute Hitzarmena urtero luzatzea gehienez ere beste lau urtez, edo Hitzarmena azkentzea.

Hitzarmena edo hitzarmenaren edozein luzapen bukatzeko epea bete baino lehen, alderdi sinatzaileetako edozeinek denuntziatu ahalko du Hitzarmena idatziz, adieraziz zeintzuk diren denuntzia arrazoitzeko kausak eta denuntziaren jakinarazpena eginez beste alderdiari gutxienez bi hilabeteko aurrerapenarekin, halako moduan non egoki bukatu ahalko baitira jakinarazpena egiten den unean hasita dauden jarduketak.

2020ko bigarren seihilekoaren finantzaketa 2021eko ekitaldirako EAEko Aurrekontu Orokorretan horretarako kontsignatutako dirulaguntza izendunen menpe egongo da; eta, era berean, aurreikuspen ekonomiko hori berdin aplikatuko da Hitzarmena indarrean dirauen gainontzeko urte naturaletan



Hitzarmen honek indargabetu egiten du erakunde berek Bilbon, 2007ko otsailaren 26an, sinatutako aurreko hitzarmena.

Sinatzaileek adierazten dute aurreko guztiarekin ados daudela, eta dauzkaten eskumenez baliatuz, hitzarmen honen bi kopia sinatu dituzte, goian adierazitako lekuan eta datan.

Lan eta Justizia Saila

**María Jesús Carmen San José López
andrea**

Sin.:

Legelarien Euskal Kontseilua

Lourdes Maiztegui González andrea

Sin.:

I. ERANSKINA

ESTADISTIKAREN ERANSKINA DATU ESTATISTIKOAK

Nork: (izena eta kargua) _____

ZIURTATU EGITEN DU _____ urtean hauxe izan dela aurkeztu diren parteen kopurua:
_____.

A – DEI PARTIKULARRAK, GUZTIRA

A.1. SEXUA

Emakumek	Gizonak	Adingabeak (mutilak)	Adingabeak (neskak)	Zehaztu gabe	GUZTIRA

A.2. ORDU-TARTEA

00:00-05:59	06:00-11:59	12:00-17:59	18:00-23:59	Zehaztu gabe	GUZTIRA

B – ESKU-HARTZEAK, GUZTIRA

B.1. JATORRIA

Jatorria	Emakumeak	Gizonak	Zehaztu gabe	GUZTIRA
Gizarte-laguntzailea				
Udala				
Abokatuen elkarteak				
Ertzaintza				
Senideak				
Epaitegia				
Beste polizia-erakunde bat				
Biktimari Laguntzeko Zerbitzua				
Orientazio Juridikoko Zerbitzua				
Osasun-zerbitzuak				
Biktimei laguntzeko telefonoa				
Beste zerbitzu batzuk				
Zehaztu gabe				

B.2. ESKU HARTZEKO ZIOA

Delitua	Emakumeak	Gizonak	Adingabeak (neskak)	Adingabeak (mutilak)	GUZTIRA
Emakumeen aurkako indarkeria					
Familia-indarkeria					
Sexu-askatasunaren indarkeria					
Zehaztu gabe					

B.3. BIKTIMEN ADINA, SEXUA ETA NAZIONALITATEA

Adina	Emakumeak			Gizonak			Zehaztu gabe	GUZTIRA
	Nazionala	Atzerritarra	Zehaztu gabe	Nazionala	Atzerritarra	Zehaztu gabe		
0-6								
7-12								
13-17								
18-25								
26-35								
36-45								
46-55								
56-65								
>65								
Zehaztu gabe								

B.4. ESKU-HARTZE MOTA

Esku hartzea	Emakumeak	Gizonak	Zehaztu gabe	GUZTIRA
Aholkularitza				
Judiziala				

B.5. ESKU HARTZEAREN KOKALEKUA: BARRUTI JUDIZIALA

- ARABA

Barrutia	Emakumeak	Gizonak	Zehaztu gabe	GUZTIRA
Amurrio				
Vitoria-Gasteiz				

• **BIZKAIA**

Barrutia	Emakumeak	Gizonak	Zehaztu gabe	GUZTIRA
Bilbo-Balmaseda				
Barakaldo				
Durango				
Gernika				
Getxo				

• **GIPUZKOA**

Barrutia	Emakumeak	Gizonak	Zehaztu gabe	GUZTIRA
Azpeitia-Bergara-Eibar				
Irun-Donostia-Tolosa				

C – JARDUKETAK

C.1. MOTA

Mota	Emakumeak	Gizonak	Zehaztu gabe	GUZTIRA
Arlo zibila				
Zigor-arloa				

C.2. JARDUKETAREN EZAUGARRIAK

Ezaugarriak	Emakumeak	Gizonak	Zehaztu gabe	GUZTIRA
Salaketa aurkeztea				
Kautela-neurriak eskatzea				
Biktimari deklarazioa egiten laguntzea				
Oso behin-behineko neurriak				
Beste jarduera batzuk				

C.3. BESTE BATZUK

Ezaugarriak	Emakumeak	Gizonak	Zehaztu gabe	GUZTIRA
Fiskaltzaren esku-hartzea eskatzea				
Auzitegiko medikuaren esku-hartzea eskatzea				
Biktimak bizilekua utzi du				

D – ESKU-HARTZEEN ONDORIOZKO IZENDAPENAK

Izendapenak	Emakumeak			Gizonak			Zehaztu gabe	GUZTIRA
	Nazionala	Atzerritarra	Zehaztu gabe	Nazionala	Atzerritarra	Zehaztu gabe		
Arlo zibilekoak								
Zigor-arlokoak								

